

Donostia, 2015eko urriaren 9a

### UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Organo Araudiko 90. eta 91. artikuluek ematen duten babes aintzakotzat hartu eta arau proposamen hau aurkezten diot Udalbatzari, Donostia Arena 2016 esparrua alokatzeko prezio publikoak arautzeko zerga Ordenantza aldatzea dela eta.

#### JUSTIFIKAZIOA

Donostia Arena 2016 esparrua alokatzeko prezio publikoak ezartzea onartu zuen Donostiako Udalbatzak 2012an. Onarturiko prezio horiek ez dute betetzen berdintasunaren hastapena, zezenketen aldekoak baitira erabat, eta horrek erakunde publiko batek ekitaldi bat finantzatzea dakar, zilegi ez dena, animalia bat hil arte txarto ere txarto erabiltzen baitute, ikusleen gozamen hutserako.

Dena dela, indarreko legeek ez dute galarazten horrelako ikuskizunak egitea, halere, guztiz onartezina da, inondik inora, gainera, diru publikoz antolatzen laguntzea.

Adibidez: Aste Nagusian Ilunbe 5 egunerako alokatzea, zezenketa ez den edozertarako, 43.846 € kostatzen da (BEZ eta guzti); zezenketak izanez gero, ordea, prezioa 25.410 € da (BEZ eta guzti). Azken batean, udalaren diruak % 42,05etan diruz lagundu die joan den Aste Nagusiko zezenketei, eta, gure iritziz, guztiz onartezina da.

Gainera, Aste Nagusiari buruzko aipua kentzea nahi genuke, udaldiak prezio berei eta handiagoak baititu gainerako urtaroan aldean jadanik.

Hortaz, ondoko aldaketak proposatzen ditugu Donostia Arena 2016 esparrua alokatzeko prezio publikoak arautzeko zerga Ordenantzari:

#### **LEHENA:**

1.4 eta 1,9 arteko epigrafeak —biak barne— kentzea.

#### **BIGARRENA:**

Aste Nagusiari buruzko aipua kentzea 1.11, 1.13 eta 1.15 puntuetatik.

Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.